

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

**Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 2231/2021 FORU AGINDUA, abenduaren 23koa, zeinaren bidez aldatzen baita Batuz proiektuaren betebeharretatik salbuesteko baimena emateko prozedura arautzen duen abenduaren 14ko 2163/2020 Foru Agindua.**

2020ko abenduan onartu zen Batuz proiektuaren betebeharretatik salbuesteko baimena emateko prozedura arautzen duen abenduaren 14ko 2163/2020 Foru Agindua, araudi honetan ezarritakoa garatzeko: batetik, uztailaren 15eko 5/2020ko Foru Arauan ezarritakoa. Haren bidez, ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak ezartzen dira; horretarako, aldatu egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra. Eta, bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 8ko 82/2020 Foru Dekretuan ezarritakoa. Haren bidez, Batuz proiektuaren tributu-betebeharrak garatzen dira, hauek aldatuta: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudia, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia eta Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia.

Bai uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauan, bai hura garatzen duen irailaren 8ko 82/2020 Foru Dekretuan, TicketBai sistema informatikoaren erabilerarekin lotutako betebehar batzuk edo guztiak betetzetik salbuesteko aukera ematen duten kasuak, zerga-administrazioaren baimena behar dutenak, ezartzen dira. Eta adierazitako xedapenetan salbuesteari dagokionez jasotakoa osatzen du abenduaren 14ko 2163/2020 Foru Aginduak, eta inguruabar jakin batzuk ematen direnean salbuespen hori baimentzeko prozedura ezartzen du.

Era berean, xedapen gehigarrian, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan aipatzen diren baldintza berezietan idazpen laburtuak egiteko baimenen indarraldia noiz amaituko den ezartzen da: 2022ko urtarrilaren 1ean.

Ondoren, abenduaren 13ko 6/2021 Foru Arauaren II. tituluaren ezarritakoa dela bide, ekonomia suspertzeko neurriak, Batuz sistema borondatez aplikatzea sustatzeko neurriak eta beste zerga-aldaketa batzuk onesten dira. Titulu horren helburua da Bizkaiko Foru Ogasunak Batuz ereduaren ezartzearen alde egindako apustu tinkoaren eta hura aplikatzearen ondoriozko betebeharrak betetzeko zergadunek egungo testuinguru konplexuan egin behar duten egokitzapen-prozesuaren arteko oreka ezartzea, eta, 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra, jarraipena ematen zaio Batuz sistemari lotutako betebeharrak borondatez betetzeko epeari. Halaber, Batuz sistemari borondatez atxikitzeko pizgarri izan dadin, konpentsazio berezia sortu da, sistema horri lotutako betebeharrak borondatez betetzea modu ezeztazinean aukeratzen duten zergadunek aplikatu ahal izango dutena, hain zuzen ere, baldin eta aplikazio-aldirako —zeina 2022an eta 2023an hasitako zergaldietara luzatuko baita— erregelamendu bidez berariaz ezartzen diren baldintzak, forma eta epeak betetzen badituzte.

Aukera hori baliatzeko eta konpentsazioa aplikatzeko prozedura Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 14ko 158/2021 Foru Dekretuaren bidez ezartzen da. Haren bidez, 2022. eta 2023. urteetarako Batuz sistemari borondatez atxikitzeko baldintzak eta aplikatu daitekeen konpentsazioa ezartzen dira, eta aldaketak egiten dira tributu-erre-



gelamendu batzuetan. Zehazki, dekretu horren 1. artikuluan xedatzen da aukera hori —zeina ezeztazina izango baita— Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa formulario bat betez jakinarazi beharko dela, berariaz ezarriko diren epeetan aurkeztu beharko dela, eta, oro har, aurkezten den egunaren hurrengo hiruhileko naturalaren lehen egunetik aurrera izango dituela ondorioak.

Testuinguru horretan, abenduaren 14ko 2163/2020 Foru Aginduaren xedapen gehigarria aldatu behar da, zehazteko aurretik aipatutako baimenek indarra galduko dutela 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko den Sozietateen gaineko Zergaren edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren lehen zergaldiaren ondorioekin, salbu eta 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen Batuz sistemari borondatez atxikitzen zaizkion zergadunentzat. Kasu horretan, baimenek indarraldia galduko dute haien aukerak ondorioak dituen egunetik aurrera.

Hala, bada, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i) artikulua emandako ahalmena erabiliz, hau,

XEDATZEN DUT:

**Artikulu Bakarria.— *Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 2163/2020 Foru Agindua, azaroaren 14koa, zeinaren bidez Batuz proiektuaren bete-beharretatik salbuesteko baimena emateko prozedura arautzen baita***

Berridatzi egiten da Batuz proiektuaren bete-beharretatik salbuesteko baimena emateko prozedura arautzen duen Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 2163/2020 Foru Aginduaren xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

«Xedapen Gehigarria.— *Emandako baimenen indar-galtzea*

Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 122 bis artikuluan 3. apartatuaren a) letran eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 113 bis artikuluan 4. apartatuaren a) letran aipatzen diren baimenen indarraldia 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den sozietateen gaineko zergaren edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren lehen zergaldian amaituko da, salbu eta 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen honako hauek borondatez aplikatzen dituzten zergadunentzat: ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen duen sistema informatikoa, bai eta eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuaren betetzea ere; emate-prestaziook eta liburua manu hauetan aipatzen dira, hurrenez hurren: Sozietatei buruzko Zergari buruzko 11/2013 Foru Arauaren 122 bis artikuluan, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko Foru Arauaren 13 bis eta 114. artikuluetan. Kasu horretan, baimen horiek indarraldia galduko dute haien aukerak ondorioak dituen egunetik aurrera, hala ezarrita baitago Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 14ko 158/2021 Foru Dekretuaren 1. artikuluko 3. apartatua. Haren bidez, 2022. eta 2023. urteetarako Batuz sistemari borondatez atxikitzeko baldintzak eta aplikatu daitekeen konpentsazioa ezartzen dira, eta aldaketak egiten dira tributu-erregelamendu batzuetan.

AMAIERAKO XEDAPENA

**Amaierako Xedapen Bakarria.— *Indarrean jartzea***

Foru Agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2021eko abenduaren 23an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,  
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ